

Plaza

[Ostirala, 2010ko apirilak 23 - 16:59](#)

[Hasiera](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Kanalak](#) | [Zuzenekoak](#)

[Paperekoa](#) | [PDFn](#) | [Iragarki laburrak](#) | [Hitza](#)

[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)

[Paperekoa](#) | [PDFn](#) | [Iragarki laburrak](#) | [Hitza](#)

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Plaza](#)

Albisterik...

2007-01-25
asTeBuruKo ProPosamenak ð

Astigarragaren ondotik, Hernani

Igandean zabalduko dute 'Wazemank' saioko aktoreek Hernaniko txotx garaia

AINARA ARRATIBEL

Iragan astean aurkeztu zuten Astigarragako sagardogileek aurtengo txotx garaia. Igandean, berriz, Hernaniko sagardogileek emango diote ongietorria sagardo berriari. Astigarragan Juan Martinez Irujo pilotariak egin bezala, *Wazemank* telebista saioko aktoreek dastatuko dute aurtengo garaiko lehen sagardoa. Umorea, behintzat, ez da faltako.

12 sagardotegik hartuko dute parte aurtengo sagardo garaian. Gehienek egunotan zabaldu dituzte atea, eta apirila arte egongo dira irekita. Herrian espero duten jendetzea kontuan hartuta, hainbat neurri hartu ditu txotx batzordeak. Herrian garbitzaile eta udaltzain gehiago ibiliko dira, eta tabernetan plastikozko edalontziak banatuko dituzte, esaterako. Sagardoa zentzuz eta ingurukoak errespetatuz kontsumitzea dira neurri horien helburuak.

Urtero moduan, Gudarien Plazan egingo da hasiera ekitaldia, eguerdiko hamabietan. Bertaraten direnek upeletik probatu ahal izango dute sagardoa. Izan ere, sagardo probaketaren betiko zentzuari eutsi nahi diote. Jatekoa ere ez da faltako, txorizo pintxo mordoa banatuko baitute.

Goiza girotzeko, txaranga ibiliko da kaleetan, eta aizkolariek erakustaldia eskainiko dute. Dena den, berritasun nagusia udaletxeko teilatutik egingo den kolore ikuskizuna izango da.

Haatik, horiek ez dira txotx garaia kariatara datozen asteetan Hernanin egingo diren ekitaldi bakarrik. Otsailaren 24an, adibidez, Sagarlastera lasterketa korrituko da. Lasterketa hainbat sagardotegititik igaroko da, eta Ave Marian amaitu.

Bestalde, Txillida Lekun sagar eta sagardo festa egingo dute, martxoaren 4an. Handik bi asterako antolatu dute, bestalde, Sagardoaren Kapituluak. Hernaniko Tolarearen Kofradiak ez ezik, beste herrietako gastronomia kofradiek ere hartzen dute parte bertan.

Txotx garaia bukatzeko, apirilaren 21an, bertsolariek, abesbatzek eta hainbat abeslarik gorazarre egingo diote sagardoari Sagardoaren Graziya festan. Ekitaldi horretan bertan, kopia zaharrak abestuko dituzte.

Zer: Txotx garaia hasiera. **Non:** Hernaniko Gudarien plazan. **Noiz:** Igandean, hilak 28, 12:00etan. **Ekitaldiak:** Sagardo dastatzea, aizkolarien erakustaldia eta kolore ikuskizuna udaletxeko teilatutik.

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 Aralarrek dio Batzarre 2011ko hauteskundeetan NaBaitik kanpo egon daitekeela
- 2 Natalia Lavrova olimpiar txapeladuna hil da, auto istripu batean
- 3 Nazi taldeen militante ohi batek hitzaldia emango du Donostian astelehenean
- 4 "Loiolakoak izango dira birkoro eguneko akordioaren osagaiak"
- 5 Azoka eta ekitaldi ugari gaur, Liburuaren Egunean

[Hasiera](#) | [Euskal Herria](#) | [Ekonomia](#) | [Mundua](#) | [Kirola](#) | [Kultura](#) | [BerriaTB](#) | [Parte Hartu](#) | [Blogak](#) | [Bereziak](#) | [Paperekoa](#)

© **Berria.info - Euskal Editorea S.L.**
 Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140
 Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172
 berria@berria.info - www.berria.info
 Lege Informazioa





Laguntzaileak:


